

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNU SAILA

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA (IVAP)

EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 30ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako aurrekontu-zuzkiduren esleipena arautzen duena.

Azaroaren 9ko 289/2010 Dekretuak Transferentzien Batzorde Mistoaren 2010eko urriaren 28ko Akordioa onartu zuen. Akordio horren arabera, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizun eta zerbitzuak, azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuak ezarritako baldintzetan.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legeak haren xedeen artean honako hau ezartzen du: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta beste edozein administrazio publikok edo antolamendu juridikok bere esku utz dezakeen funtzionarioen eta kontratadunen prestakuntza eta hobekuntza»..

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak, 2019 ekitaldirako luzatuak, onartzen dituen 5/2017 Legeak, zuzkidurak kontsignatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonen prestakuntza finantzatzeko. Zuzkidura horiek isla dute Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) aurrekontuan. Aurrekontu honek, zuzkidura espezifikoak du ondoko xederako: Eusko Jaurlaritzako sailen prestakuntza planak.

5/2017 Legearen Hamargarren Xedapen Gehigarriak xedatzen duenez, Euskal administrazio publikoetako enplegatuen enplegurako prestakuntzarako IVAP organismo autonomoaren aurrekontuetan agertzen diren kredituak organismo horrek kudeatuko ditu, kasuan kasuko deialdien bidez.

Deialdi honetan, Euskadiko Administrazio Orokorreko sailtako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko zuzkidura ekonomikoaren kudeaketa eratzten da. Deialditik kanpo gelditzen da Hezkuntza Saileko irakasleen prestakuntzaren finantziazioa, berriazko araudia baitu.

Prestakuntzaren finantziazioa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko planifikazio estrategikoan jasotzen da eta hauen helburua da prestakuntza-plan edo -programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurrekontuaren plan edo programak sail bakoitzaren prestakuntza-beharrizaren analisi edo diagnostikoan oinarritu beharko dira.

2019ko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzaren Sailei ezarritako kopuruari dagokionez, eskatutakoaren batura, aurreikusi den zuzkidura baino handiagoa denean, sail bakoitzean prestakuntza jaso dezaketan langileen kopuruaren arabera hainbanatuko da.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea ahaleginduko da baliabideak errazten interesa duten sail guztiek prestakuntza-beharren analisi edo diagnostikoak efizientziarik handienarekin egiteko. Horrenbestez, honako hau

EBATZI DUT:



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1MX4-G68T bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1MX4-G68T en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko enplegatuen prestakuntza finantzatzeko zuzkiduren esleipena arautzea, ebazpen honen I. eranskinean ageri diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 30a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ENPLEGATUEN PRESTAKUNTZA FINANTZATZERA BIDERATUTAKO ZUZKIDUREN ESLEIPENA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek bertako enplegatuentzat 2019ko ekitaldian egingo duten enplegurako prestakuntza finantzatzeko aurrekontu-zuzkidurak esleitzea da deialdi honen xedea.

Finantzatzeko diren prestakuntza-plan edo -programek, berariazko prestakuntza-eskaintzaz gain, honako ekintza hauetakoren bat edo batzuk jaso ahal izango dituzte:

- Prestakuntza-edukiak diseinatzea eta/edo prestatzea.
- Ikaskuntzako sareak ezartzea, aldi baterakoak nahiz iraunkorrak.
- Irakaskuntzako materiala diseinatzea, prestatzea eta argitaratzea, prestakuntzan erabiltzen den edozein euskarritan.
- Aprobetxamenduaren, transferentziaren edo eraginaren ebaluazioarekin lotutako azterketak, erakundeak garatutako prestakuntzari buruzkoak.

Ez dira inola ere diruz laguntzeko modukoak izango plan edo programetan aurreikusitako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen joan-etorri, mantenu-, egonaldi- eta ordezkapen-gastuak.

Deialdi honen bidez finantzatzen diren prestakuntza-plan, -programa edo -jarduerak, ondoko arauaren aplikazio eremuaren barruan daude: 30/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen prestakuntza planifikatu eta antolatzeko irizpide orokorreari buruzkoa.

Bigarrena.- Definizioak.

Deialdi honetan ezarritakoa interpretatze eta aplikatze aldera, betiere kontuan izango dira honako definizio hauek:

a) Prestakuntza Beharren Analisia da pertsona batek lanpostua behar bezala betetzeko jakin beharko lukeenaren eta dakienaren arteko aldearen analisia.

b) Prestakuntza-plan edo -programatzat hartzen da prestakuntza-ekintzen multzo antolatu bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen prestakuntza planifikatu eta antolatzeko irizpide orokorreari buruzkoa. 30/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera (EHAA, 2008ko otsailaren 27koa).

c) Prestakuntza-ekintzatzat hartzen da, oro har, langileei alderdi, eremu edo ezagutza-arlo jakin bati buruzko prestakuntza ematera bideratutako eragiketaren multzoa. Prestakuntza-ekintzak ikaskuntzakoak edo informazioak izan ahal izango dira, otsailaren 19ko 30/2008 Dekretuaren 4. artikuluan ezartzen denaren arabera.

d) Erakundearen langile-kopurua: erakundearen guztizko plaza-kopurua, onartutako

azken aurrekontu-plantillaren arabera.

Hirugarrena.- Finantziazioaren jasotzaileak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako finantziazioa jaso dezakete, beren langileentzat prestakuntza-plan edo -programak sustatzen dituzten Eusko Jaurlaritzako sailek.

2.– Eusko Jaurlaritzako sailek, beren prestakuntza-plan edo -programa aurkeztuz parte hartu ahal izango dute deialdi honetan. Plana edo programa bakarra izango da sail bakoitzeko.

Laugarrena.- Zuzkiduraren zenbatekoa.

Banatzeko den zuzkidurak, gehienez, 125.000,00 euroko zenbatekoa izango du guztira.

Bosgarrena.– Prozeduraren hasiera.

Deialdi honetako lehenengo oinarrian zerrendatutako kontzeptuengatik finantziazioa lortzeko, sail interesdunek eskabidea aurkeztu beharko dute, oinarriotan zehaztutako eran.

Seigarrena.- Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 3an amaituko da, 24:00etan.

Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin ahal izango dituzte eskabidea, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak. Hortaz, eskabideak helbide honetan aurkeztu beharko dira, bitarteko elektronikoz: IVAPen webgunea, <http://www.ivap.euskadi.eus> , Sariak eta Laguntzak atalean.

Erakunde interesdunek, bitarteko elektronikoz, prozedura honetako izapide guztiak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak onartzen duen edozein ziurtagiri elektronikoa erabili ahal izango dute. Onartutako ziurtagiri elektronikoak zeintzuk diren jakiteko, esteka honetan kontsulta egin ahal izango da:

https://www.euskadi.eus/y22-zer/eu/contenidos/informacion/certificados_admitidos/eu_cert_ele/certificados_electronicos.html

Eskabidearen ondorengo izapideak, «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <http://www.euskadi.eus/nire-karpeta>

Zazpigarrena.– Eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

a) Finantzatzeko diren prestakuntza-plan edo programak. Hauek, gutxienez, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren otsailaren 19ko 30/2008 Dekretuan ezarritako edukia (EHAA, 2008ko otsailaren 27koa). Prestakuntza plana, Prestakuntza Beharren Analisari lotu beharko zaio. Analisi hori, IVAPek zehaztu duen Prestakuntza Beharren Analisaren metodologian oinarritu daiteke. Era berean, analisitik ondorioztatzen diren prestakuntza lehentasunak jasoko dira.

b) Eskabidea lehenengo oinarrian aurreikusitako ekintzaren bati edo batzuei badagokie, prestakuntza-eskaintzarekin batera hau erantsi behar da gutxienez:

– Ekintzaren edo ekintzen deskribapena.

- Beharrianaren edo komenigarritasunaren justifikazioa.
- Ekintzaren edo ekintzen kostua.

c) Eskabidearekin batera, indarrean dagoen aurrekontu-plantillako langile-kopuruari buruzko ziurtagiria.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu behar diren dokumentuek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, edo haien edukia nahikoa ez bada, sail eskatzaileari jakinaraziko zaio hamar egun dituela eskabidea osatzeko edo akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio, horrela egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Zortzigarrena.- Zuzkiduraren esleipena.

Prestakuntza-plan edo -programei buruzko zuzkiduraren esleipena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen baten bitartez egingo da. Ebazpen horrek finantzatutako sailen zerrenda bilduko du, bai eta sail bakoitzari dagokion diru-kopurua ere. Finantzatutako kontzeptuak ere adieraziko dira. Ebazpen hori honako helbide elektroniko honetan argitaratuko da: <http://www.ivap.euskadi.eus> . Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da.

Aurkeztu diren prestakuntza-plan edo -programengatik esleitzen den kopuruak ezin izango du gainditu, sail bakoitzeko, kostuaren ehuneko berrogeita hamar.

Guztira eskaturiko diru-kopuruak gainditzen badu laugarren oinarrian aurreikusitako diru-zuzkidura, proportzio honen arabera burutuko da esleipena: sail bakoitzak duen langile-kopurua, sail eskatzaile guztietako langile-kopuruaren aldean. Ondorioz, agerian utzi nahi da posible dela entitate eskatzaileek aurkeztutako hasierako aurrekontua behin betiko zuzkidurarekin bat ez etortzea.

Bederatzigarrena.- Sailen betebeharrak.

Deialdi hau, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak ezartzen duenaren menpe dago. Aplikagarria da, halaber, 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu- araubidearen arloan indarrean diren legegintzaren testu bategina onartzen duena eta indarrean dauden gainontzeko araudia.

Honako hauek izango dira, bereziki, finantzazioa jasotzen duten sailen betebeharrak:

a) IVAPi behar bezala justifikatzea baldintzak eta betebeharrak bete dituztela, bai eta esleipena dakarren jardura egin dutela ere.

b) IVAPek egingo dituen egiaztapenen mende eta indarrean dagoen araudiaren mende egotea.

c) IVAPi aditzera ematea beste zernahi administrazio, erakunde publiko edo erakunde pribaturen batek xede bera duten diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eman dizkien.

d) Zuzkidura esleitzeko kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu baldin bada, horren berri ematea IVAPi.

Esleipenean kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, gerta liteke

horren ondorioz esleipen-ebazpena ere aldatzea. Era berean, ebazpen hori eraldatzea eragin dezake beste administrazio batzuen edo erakunde publiko zein pribatu batzuen diru-laguntzak eskuratzeak eta, edozein kasutan, xede bera betetzeko beste zernahi diru-sarrera edo baliabide jasotzeak; baldin eta, ebazpen honen babesean esleitutako zuzkidurarekin batera, diruz lagundu daitekeen edozein kontzepturen finantzaketan, kostuaren guztizkoaren gainera dagoen zenbatekoa hartzen badute.

Hamargarrena.– Esleitutako diru-kopurua justifikatzea eta ordaintzea.

Planaren betearazpena justifikatzeko epea 2019ko azaroaren 30ean amaituko da.

Prestakuntza-plan edo -programak betetzeagatik zuzkidurak esleitzen dituen ebazpena argitaratzen denean, esleitutako kopuru osoaren ordainketa izapidetuko da. Ordainketa hori planaren edo programaren kontura emandako entregatzat hartuko da.

Planaren edo programaren betearazpen-maila justifikatzeko, esleipendun diren erakundeek hau aurkeztu beharko dute:

– Aurkeztutako prestakuntza-planaren edo -programaren betearazpenari buruzko txostena.

– Erakundeak burututako prestakuntza-plan edo -programaren kostuari buruzko ziurtagiria, erakundeko barne-fiskalizazioaren arduradunak izenpetua.

– Ziurtagiria, ondokoa adierazten duena: planak edo programak ez duela jasotzen deialdi honetan esleitutako kopuruarekin batera, gehiegizko finantzaketa dakarren laguntzarik, kostuaren edo bete den planaren edo programaren zatiari dagokion kostuaren gainera dagoen zenbateko batean.

Finantzatu beharreko jardueren justifikazioa «Nire karpeta» egoitza elektronikoan egin beharko da, <http://www.euskadi.eus/nire-karpeta>

Egindako justifikaziotik ondorioztatzen bada prestakuntza-plana edo -programa ez dela bete edo zati batean bakarrik bete dela, ondorio den likidazioa egingo da, planaren betearazpen-maila eta kontura jasotako diru-kopurua kontuan hartuta. Gertatuko balitz sailak azkenean egokituko zaion zenbatekoen gainera dagoen kopurua jaso duela, itzuli egin beharko da behar ez den bezala jaso den kopuru hori.

Hamaikagarrena.– Behin-behingo edo behin betiko esleitutako finantziarioari uko egitea.

Sail esleipendunek uko egin diezaiokete, osorik edo partez, esleitu zaien finantziarioari. Uko-egitea idatziz jakinarazi beharko da, eta esleipenetik eratorritako eskubide ekonomiko guztiak edo uko-egitearekin lotzen den zatiari dagozkion eskubideak galtzea ekarriko du. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, betiere, onartu egingo du aurkeztutako uko-egitea.

Hamabigarrena.– itzultzea.

Sailek bederatzigarren oinarrian ezartzen diren baldintzak ez betetzeak, zuzkiduraren transferentzia gauzatu duten kontabilitate-eragiketak, osorik edo zati batean deuseztatzea ekarriko luke

Hamahirugarrena.– Administrazio-isiltasuna.

Deialdiaren ebazpena indarrean sartzen denetik sei hilabete igarotzen direlarik, eta

epe horretan deialdiaren Interneteko helbidean zuzkidura esleitzeko inolako ebazpenik argitaratu ez delarik, sail interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute beren eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1. a artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

Hamalaugarrena.– Datu pertsonalen babesa.

Prozesu honetan jasotzen diren datu pertsonal guztiak «IVAPek antolatu edo homologatutako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak» izeneko tratamendu-jarduerara ekarriko dira. Datu hauen erabilera eta funtzionamendua, betiere, izaera pertsonaleko datuen babesari eta titulartasun publikoko izaera pertsonaleko datuen fitxategiei buruzko legediko aurreikuspenetara egokituko da (2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonalak Babesteko eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa eta garapeneko araudia). Tratamenduaren arduraduna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria izango da. Indarrean dagoen legeriak datuen titularrei aitortzen dizkien eskubideak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren aurrean baliatu ahal izango dira.